

Ostirala, 2013ko maiatzak 10 - 12:52

## Agenda

bilatu...

Bilatu

[Hasiera](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Kanalak](#)
[Zuzenekoak](#)


[Paperekoa](#)
[PDFn](#)
[Iragarki laburrak](#)
[Hitza](#)
[Harian](#) | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | [Plaza](#)
[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Agenda](#)

2013-05-08

KOMUNIKAZIOA. HELEN DARBISHIRE. INFORMAZIO ESKUBIDEAREN ALDEKO EKINTZAILEA

## «Gardentasun txikieneko herriak daude krisian, eta harremana dago»

Informazioa jasotzea herritarren eskubidea da. Hori aitortzearen alde lan egiten du Darbshirek, Access Info Europe erakundearen.

### JONEBATI ZABALA BILBO

Informazioa eskuratzeko eskubidea sustatu eta babesten duen giza eskubideen aldeko Access Info Europe (AIE) erakundeko zuzendari exekutiboak da Helen Darbshire. Gobernuen fiskalizazioan eta erabakiak hartzeko orduan partehartzeko publikoak errazteko tresna da erakundea. Adierazpen askatasunaz eta informazio publikoaren gardentasunaz hitz egin du Darbshirek Bilbon egunotan.

### Udan, Espainiako Kongresuan Gardentasun legea onartuko dutela aurreikusi dute. Zer deritzozu legeri?

Alde batetik, Gardentasun legea onartzea aurrerapausoa da. Baina, bestetik, desilusia izan da. Izan ere, lege progresista bat egiteko aukera izan dute, baina ez da halakoa izango. Oso lege mugatua da, eta ez du inola ere egungo egoera errotik aldatuko. Gustatuko litzaidake zuzenketak egingo balira legea hobetzeko.

### Zeintzuk dira muga horiek?

Nire kezka handiena 15. artikulua da, hau da, txosten eta komunikazioetako informazioa jasotzea mugatzen duena. Funtsezkoa da informazio hori eskuratu ahal izatea, askotan administrazio publikoek duten informazio ugari mezu elektronikoetan baitago. Administrazio zentralerako oinarriko informazioa eskura izatea ezinbestekoa litzateke. Gainera, kezkatu egiten nau botere legegile eta judizialeko hainbat informazio legetik kanpo geratzeak; hori ezin da mugatu.

### Beste herrialde batzuekin alderatuta, ze egoeratan dago Espainia?

Oso larria da ez izatea informazioa eskuratzeko eskubidea bermatzen duen legerik. Ezaugarri horietako legerik ez duen Europako Batasuneko azken herrialdea da Espainia, milioi bat biztanle baino gehiago dituena. Munduan 94 herrialdek dute lege hori. Indarrean jarri duen azkena Ruanda izan da, Europa ekialdeko herrialdeetan, eta Txilen, Uruguain, Mexikon, esaterako, informazio eskaera gehiago asetzen dituzte.

### Ustelkeria eta informazioa eskuratzeko eskubiderik eza eskutik doaz?

Korrelazioa dago, bai. Informazioa eskuratzeko eskubidea bermatzen duen legea ez da magikoa, eta ez du ustelkeria bat-batean desagerraraziko, baina asko laguntzen du mota horretako arazoak identifikatzeko. Esaterako, egun krisian dauden herrialdeei begiraturaz, Europako hegoaldekoak dira, Espainia, Italia, Grezia, Txipre... Esanguratsua da gardentasun gutxien bermatzen duten legeak izatea; harremana egon badago.

### Kontzientzia falta ikusten du AIEk herritarren aldetik?

Nik aldaketa bat ikusten dut gai horretan. Azkenaldian hainbat eskandalu ateratu dira argitara; publikoak, oro har, informazioa jasotzeko eskubidea izan beharko luke. 2006an Erresuma Batutik Espainiara joan nintzenean, Access Info sortu genuen, eta iruditu zitzaidan GKE askok ez zekitelako zen informazioa eskuratzeko eskubidea. Hori aldatzen ari da. Esango uke krisi ekonomikoak esnatu



### Albisterik...

[IRAKURRIENAK](#)
[Bozkatuenak](#)
[Bidalienak](#)

- 1 Urtza Alkortaren atxiloketa saihesteko Aske Gunea eraiki dute Ondarroan
- 2 CANeko Erakunde Sortzaileen Batzordeko sei kargudun politikok lekuko gisara deklaratu dute
- 3 Berrogei urte herria eraikitzen
- 4 Belfast berrasmutzen
- 5 Durango, Zalla eta Izpurrara helduko da asteburuan ospakizun bira



/ MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

egin dituela herritarrak. Informazioa exijitzen dute orain. Eskubide hori bermatua izan dadin, Arartekoa eta antzeko figurak erabili behar ditugu, hori baitu bere eginbeharra, herritarren eskubideak babestea.

### Zein egiteko izan beharko lukete kazetariak, eskubide hori bermatze aldera?

Galdetu beharra dago, informazioa eskuratzeko eskubidea sortu behar dugu, administrazioei galdetu behar diegu, ea zertan gastatzen duten diru publikoa. Kazetariak, alde horretatik, gizartearen ordezkari publikoa izan behar du. GKEek eta gizarte zibileko erakundeek ere informazioa bilatzeko betebeharra dugu.

### Kazetariatzat, oinarritzko lan tresna da informazioa...

Informazioa eskuratzeko eskubidea ez bermatzea kazetarien eskubidea eta gainontzeko herritarrena ez aitortzea da. Espainiako Konstituzioko 20. artikulua urratzea litzateke. Ez dugu adierazpen askatasun eta prentsa askatasunik, informaziorik gabe. Herritarrek ez dute jasotzen informaziorik, eta, ondorioz, ezin dugu iritzia sortu. Oinarritzko eskubide hori beharrezkoa da, Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak ere aitortzen du.

### Tuderechoasaber.es plataforma sortu duzue, Civio fundazioarekin batera. Zertan datza?

Erresuma Batuko programa bat hartu dugu eredu gisa, erakunde publikoei buruzko informazioa eskatzeko eta jasotzeko plataforma bat da. Hor, herritarrek euren eskaerak jartzen dituzte. Eskaera eta erantzuna web orrian geratzen dira, beste pertsona batzuentzat informazio hori erabilgarria izan daitekeelako. Administrazio publikoari egindako informazio eskaeretatik erdiak baino gehiagok ez dute inolako erantzunik jasotzen; hala jakin izan dugu plataformaren bitartez.

Hasiera | Euskal Herria | Ekonomia | Mundua | Kirola | Kultura | BerriaTB | Parte Hartu | Blogak | Bereziak | Paperekoa |  

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.  
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140  
Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172  
berria@berria.info - www.berria.info  
Lege Informazioa



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia